

## D. JOSE M. BARANDIARAN-EN OMENEZ

*Bilbo, 1978 - IV - 15*

*Fr. L. Villasante*

Euskal Herriko Unibertsitateak "doctor honoris causa" titulua eman dio gaur Jose Miel Barandiaran jaunari.

Eta Euskaltzaindiak ezin huts egin zezakeen ospaketa huntan.

Ez Jose Miel Barandiaran euskaltzain osoa delako bakarrik. Beste alor bateko aztertzaile izanik, euskarari emaitzarik ederrena ekarri diolako baizik.

Guztiok dakigu Etnologia, Antropologia eta Historia-aurrea izan direla Barandiaran jaunak berariaz landu dituen alorrak. Baina hori egiten zuen denbora berean, zer-nolako mesedea ez dion egin euskarari! Ustegabeko eta konta ezineko ondasunak jarri ditu gure eskuetan.

Hor dira Gasteizko Seminarioan argitaratzen zituen orri umil haiek, herriz-herri eta ahoz-aho jasotako ipuinez beteak. Zer harrobi paregabea herriko hizkuntza den bezala ezagutzeko!

Eta zertan datza orri hoiien balioaren sekretua? Huntan, dudarik gabe: Zientziaren metodoari gorde zaion atxikiduran.

Zientziari leialtasuna gordetzea ez da beti erraza gertatu gure artean. Zenbat aldiz, hobetzeko kontuan noski, herritik hartutako gauzak ez zaizkion irakurleari aldatuak eta nahas-tekatuak eskeini!

Ez horrelakorik Barandiaran jaunak. Hortan hertsia eta zorrotza izan da bera. Herritik jasotako datoari leialtasun osoa gorde dio, eta horri esker, ze ondorio zoriontsuak ez diren segitu guztiontzat! Horri esker, hor dugu harrobi bat ezin hobe gure mintzaira ezagutzeko, tokian tokiko hizkeren

berezitasunak jakiteko, eta hortaz gainera gure herri literaturara, herri jakituria, euskal mitologia, etab. aztertzeke.

Zuzenean linguista edo euskalarien zereginean aritu gabe, gure mintzairari dagozkion iturrietarik nagusienetako bat eskuetaratu digu Barandiaran jaunak.

Eta hori zer garaitan! Magnetofoirik ez zen garaian, dena lumaz, lapitzez eta neke handiz egin behar zen garaian.

Izan zituen, noski, laguntzaile eta lankideak, baina hori ere puntu bat gehiago da On Jose Mielen alde, zeren nornahik ez baitu horrelako saririk izaten. Berariazko dohainen jabe behar du izan taldekako lanaren gidari denak, eta On Jose Mielek dohain hoiek badituela ongi erakutsi du.

Tamala izango litzateke gaur magnetofoi, cassette-ak etab. ditugularik, orduan horrelako tresna gabe egin zen lana egiteko gai ez izatea. Eta zinez, herriko hizkerak jasotze kon-tuan gaur zabar eta atzeratu xamarrak gabiltzala uste dut. Mitxelena jaunak ere salatu du gaurko huts hau.

Hori esatean salbuespen batzuk egin behar ditudala badakit. Hor dira Geneviève N'Diaye, Karmele Rotaetxe, Jose Maria Satrustegi, Alfonso Irigoien, etab., langile fin direnak; baina ez da aski. Batez ere galzorian diren zenbait hizkera berezi lehen-bai-lehen jaso beharko lirateke. Bilketa hoi- en zaletasuna pizteko eta bultzatzeko, Euskaltzaindiak joan den urtean sariketa bat iragarri zuen, baina, nik dakidala, ez du oiartzunik bat ere izan. Tamala izango litzateke On Jose Mielek hain dohatsuki urratutako bideak segidarik izango ez balu.

Baina hel gakizkion geure gaiari. On Jose Miel Barandiaran beti mantendu da euskarari gogotik atxikia. Diodanaren lekuko, hor du bere monografia *Lehen euskal gizona*, berberak euskaraz emana. Eta jakin dudanez, egiten dituen azterketen oroigarriak beti euskaraz eta erdaraz egiten ditu. Ez da lezio makala hunekin eman diguna. Gehienetan, edo ia beti, erdarazkoa bakarrik argitaratu izan da, baina berak euskaraz ere eman izan du. Uste dut gaur esan beharrekoa zela hau: batetik, dato hunek On Jose Mielen euskal atxikidura salatzen duelako, eta bestetik, euskaraz egindako oroigarri hoiek noizbait argia ikus dezaten.

Bukatzeko, zilegi izan bekit oroitzapen bat aipatzea. 1951ko udan Frantziara joan-etorri bat egin nuen. Muga

pasatzea lehenbiziko aldiz egiten nuen, eta bide batez zenbait toki ikusi eta zenbait jaun agurtu nahi nituen. Bat, noski, Axular-en herria, Sara, eta bertan Jose Miel Barandiaran, han bizi baitzen. Eta hala egin ere nuen. Tamalez egun hartan Jose Miel ez zen etxean gertatu, baina bazen han norbait, eta oroit naiz nola zeukan sukaldeko orman zintzilik Arantzazuko Ama Birjinaren egutegia.

Eta bere jaioterrira bihurtu zenetik, testigu naiz nola urtero urtero egin izan dion bere bisita Arantzazuko Amari. Gainera, azken urte hauek arte, beti mendiz eta oinez etorritz.

On Jose Miel! Zu ohoratzeaz Euskal Herriko Unibertsitateak bere burua ohoratu du eta gu guztiok ere ohoratzen gaitu. Zorionak! Eta eskerrik beroenak gure herriari ekarri dizun uzta paregabeagatik eta guri denoi zure bizitzeaz eman diguzun ejenplo argiagatik!